


Goierritarra

303. zenbakia 2006ko ekainak 23

Joxe Mari Telleria

TXISTULARI MARGOLARIA



Dolarea
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Aho finen
gozamenerako...*



reaktone



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307




Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

Auxe da gai polita zaidana iritxi: loaz eman bearra iru lau iritzi. Lo-paltak sarri baidit nei begiak itxi, ainbat parranda nola dedan nik iritzi, eta ez leike inor lorik gabe bizi.

Lo bear du pertsonak irutatikan bat, naiz sarritan ibili egin gabe ainbat. Ni ere gutxiago eginda nago bart, eta begiondoak gorrituak dauzkat, ta burun ere karga latza badaramat.

Bai; ezin leike bizi lo gabe pertsona, ta gauez egiten da lorikan goxona; eta zortzi bat ordu da tamaiña ona, ala osatuzten da andre edo gizona, baita iritxi ere atsedeen osona.

Jose Insausti. 'Beti bertsoa buruan' liburutik

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

- 4. Iritzia:** Enekoitz Telleria.
- 5. Ingurugiro txokoa:** Turismo iraunkorra.
- 6. Errezeta:** Bakailoa saltsan.
Aholkua: Kolesterol maila altua daukat. Zer egin behar da?
- 8. Erreportajea:** UEMA-ko kide diren Goierriko udalak.
- 14. Elkarrizketa:** Ezkioko 'Agerpenak' gertatu zirenetik 75 urte.
- 18. Elkarrizketa:** Joxe Mari Telleria: txistulari margolaria.
- 21. Gazteleku:** Alazne Furundarena atleta.
- 22. Garai batean...:** Lardizabal idazlea jaio zela 200 urte.
- 24. Iragarki laburrak.**
- 26. Argazki zaharra.**



Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta
Zeraingo udalak





Enekoitz Telleria

Ongi Tiley

Ez duk berria. Lehen behin baino gehiagotan aritu gaituk gai beraren jiran. Aldatu egin gabela. Onerako edo txarrerako izan den ur handi samarretan sartzea izango duk, baina aldatu gabela, hori garbi. Egunerokoan nabaritzen diat nik, asteburuorokoan zer esanik ez, eta sanjoanak iristen direnean... Ordukoa bai aldaketa. Niri orain lanera iristen zaidak sobre handi bat urtero. Segurako jaien programa, eta hire agurra eta sinadura. "Kanpotarrontzat" izan ohi den detailetxoa, hire arabera. Beste modu batera bizi genian lehen Tiley. Baserriz baserri ibilitakoak gaituk programak banatzen, Mutiloako presan pelotatan bainua hartutakoak gero, eta galtzerdiak txirinduaren manillarrean lehertutakoak etxera bidean —zubi azpian eskuz harrapatutako amuarrainarena ez diat gogoraziko haserretu egiten zarete-eta hi eta Juantxo nik bakarrik harrapatu nuelako—.

Ez duk berria. Lehen behin baino gehiagotan aritu gaituk gai beraren jiran. Aldatu egin gabela. Dantzari txapelketa lehen taularen azpitik eta dantzariren bati pololoak zirrikitutik noiz ikusiko bizitzen genuela, eta harmailetatik bizitzen dugula orain, Azpitarte anai-arreba gure betiereko faboritoei garraisika, eta hi taula gainean aitaren izena daraman saria nola banatzen ari haizen begira, hunkituta. Eta frontoi zaharrean ikusten genian lehen —pololoena—, eta frontoi berrian orain —

sariarena—. Eta frontoi zaharra berri izango diagu orain. Eta inaugurazioan hi. Eta Ainara eta Beñat joan den asteburuan senarra eta aita agurtzen. "Esan agur aitari Beñat. Datorren asteburutik aurrera Goierri Telebistan bakarrik ikusiko dugu-eta!". Eta ni pentsakor. Aldatu egin gabela pentsatzen. Erantzukizunak beste batzuk direla hausnartzen. Lehen asko jota, kabezudo janztearen ardura genuelako —eta hura ere nekez betetzen genian askotan komun atzeetan egiten genuelako hitzordua ahalik eta korrika gutxien egiteko—, eta orain erantzule nagusi bihurtu haizelako. Urte osoko jarduna duk, noski, baina sanjoanetan ikusten haut nik goia jota. Purrustadak eta eskertzarrekoak gehiago izango dituk hire lanean ziur, loreak eta eskeronekoak baino. Eta jabetzen naizela esan nahi nian, besterik ez. Alderdi, aginte, bozka, gestio eta horrelako hitz potoloez haruntzago. Lagun gisa. Halabeharrek horrela aginduta behin kanpora joatea tokatu zaionaren kanpotar gisa. Beharra nian esateko. Eta esan egingo diat, ongi ari haizela Tiley. Oso ongi. Jabetzen gabela hiru ingurukoak hire ahaleginaz. Eta ez direla denak muxinak eta purrustadak izango.

Eta aldatu gabela aitortuta ere. Erantzukizunak estutu gaituela onartuta ere, guztiok bat egingo dugula aurtan berriz. Gure blusa jada kolorerik gabea jantzita —Manexek eta Imazek esango ditek aurtan ere polita dela—, eta praka zuriekin. Txarangakoak ote garen galdetuko zigutek aurtan ere, eta guk baietz. Hori ez dela aldatu. Eta gure esku dagoela ez aldatzea. Aldatu gabela onartuta ere, gauza batzuk ez direlako sekula aldatzen.

Ah! Eta ez dakienarentzat, Tiley gurean Mikel da. Mikel Areizaga. Segurako alkatea.

Esan egingo diat, ongi ari haizela Tiley. Oso ongi. Jabetzen gabela hiru ingurukoak hire ahaleginaz.

 Beasaingo Udal Euskaltegia Tfnoa.: 943 028100 Loinazko San Martin plaza. zuzendaritza@beasain.net	Euskara ikastaroak 2006-2007			Udako euskara ikastaroak	
	IKASTAROAK	ORDU KOPURUA	HASIERA-BUKAERA	IKASTAROAK	ORDUAK
EGA Ikastaroa	120 h.	07/1/16- 07/5/ 22	Ikainaren 26tik uztailearen 21era	100 ordu	
Maila guztiak	344 h. 276 h. 220 h.	06/09/14-07/06/25 06/09/14-07/06/25 06/09/14-07/06/21	Irailaren 4tik 29ra	40 ordu	
Etorkinentzako ikastaroak	60 h.	06/10/03-06/12/21 07/01/09-07/03/15	Matrikula epea: ekainaren 5etik 21era		
Autoikaskuntza Tutorearekin	219 h.	2006/09/14-2007/06/25	Beka sistemak eta diru-laguntzak		
Mintzalaguna, Tailerrak ... (bakarrik edo zenbait klase presentzialez gain)	Izena emateko epea: irailaren 22arte			Izena emateko udaleuskaltegiak.net erabiliz gero, matrikula baten zozketan parte hartuko duzu	

Turismo iraunkorra

Turismoa mundu mailako industria handienetarikoa da, eta ingurumenari gehien eragiten dionetako bat. Gainera, kultura trukaketa handia suposatzen du bisitari eta bertakoen artean, ohituretan ere eragina duelarik, nahiz eta hau beti negatiboa ez izan.

Mundu mailan 250 milioi lanpostu sortarazten du turismoak (bederlatzi lanpostutik bat gutxi gora behera) eta mundu osoko barne produktu gordinaren %11a. "Ipar hemisferioko" biztanleek kontsumo pertsonalaren %13a bideratzen dute turismo gastuetara, elikadura gastuen ondoren. Antartidatik hasita Everestaraino, planetako edozein puntu dago turismo industriaren barruan sartua, eta gainera inongo herrialdek ez du turismoaren etekinik inola ere galdu nahi. Hala ere, beste kasu batzuetan bezala, garapen bidean dauden herrialdeetako populazio gehienak ezin du tentsatu ere egin honelako aisialdi ekintzak burutzea.

Turismoak eragiten dituen ondorioak baikorrak eta ezkorrrak dira. Alde batetik ondorio positibo argiak ditugu: lanpostuen sorrera, sarrera ekonomikoak handitzea, lanpostu ezagatik ematen diren migrazioen geldiera, bertako popula-



zioaren kultura maila hobetzea eta ohitura libreagoen ezarpena, kultura trukaketa bi zentzuetan, biz moduen aldaketa, turisten eta bertako biztanleen sentsibilizazioa ingurumenarekiko, eta abar. Baina bestalde, ondorio negatiboak daude, aurrekoak bezain garrantzitsuak: lur, ur, eta energia kontsumoaren igoera nabarmena, paisaien suntsipena, zabor eta ur zikinen produkzioaren igoera, animalia eta landare espezie exotikoen sarrera, populazio migrazioa hiri edo herri turistikoetarantz, baso suteen handitzea, pertsona eta drogen trafikoa, eta abar. Gainera, turismoak ekosistema ugari eragiten dio: itsas ertzekoetatik hasita, mendi ekosistemetera arte, eski estazioek edo geroz eta arruntagoak diren golf zelaiak. Bi adibide hauek ur

kontsumo handia suposatzen dute, ingurumenean nabarmenki eraginez.

Beraz, nolabait laburbildu daiteke esanez, gaur egun burutzen den turismoa ez dela iraunkorra. Baina hau, beste hainbat gauzarekin gertatzen den moduan, etekin azkar eta zuzenak lortu nahi izatearen ondorioa da, masifikazio eta baliabideen suntsipena bultzatuz. Hala ere, Munduko Turismo Batzordeak definitu du nolakoa izan beharko lukeen turismo iraunkorra: "Turismo iraunkorrak gaur egungo turista eta lurralde hartzaileen beharrei erantzuten die, baina bestalde etorkizuneko aukerak bermatu eta habestu egiten ditu. Baliabide guztien gestioaren bide bat da, non ekonomi, sozial eta estetikoak diren beharrak bermatzen diren, aldi berean osotasun kulturala, oinarriko prozesu ekologikoak, biodibertsitatea eta bizitza sostengatzen duten sistemak errespetatuz"

Informazio iturria:
Iraunkortasunaren
Heziketaren aldeko
Hamarkada web orria:
www.oei.es/decada

Gaur egun burutzen den turismoa ez da jasangarria, etekin azkar eta zuzenak lortu nahi izatearen ondorioa da.

JAKIN BEHARREKOAK

Mendikoiren ikastaroa: Euskal Herriko Unibertsitateak Donostiako Miramar Jauregian burutzen dituen Uda Ikastaroen XXV. edizio honetan, Mendikoik antolatutako ikastaro bat emango da ekainaren 29ean, 30ean eta uztailaren 1ean: 'Landa igurunea eta nekazaritza: posible al da nekazaritza gabeko landa igurunea?' ikastaroa izango da. Honen helburuetako bat landaguneetan nekazaritzak duen garrantzia aztertzea eta honen inguruan eztabaida sortzea litzateke.

Mendikoiko Web orrian aurki dezakezu ekintza honen inguruan informazio gehiagarria. Matrikulazio informazioa: <http://www.sc.ehu.es/cursosverano/> / Ikaslegoaren Departamentua 943219511

Oriako angulak. Aztik, Euskadikoa teknologia institutoak, itsas ikerketan eta elikagaien espezializatua, Intereg-Indicang egitasmoan parte hartuko du. Helburua atlantiar kostetan angulararen etorkizuna bermatzea da. Honetarako Oriako arropa aukeratu da lehenengo aingira laginak hartzeko, bertako arrantza ohituraren gatik, tamaina eta azpiegiturak.

LIBURUA

"¿Sabemos realmente lo que comemos?" Amelia A., Martí del Moral eta J. Alfredo Martínez dira egileak, bertan elikagai transgenikoa, ekologikoa eta funtzionala kontzeptuak argitzen dira eta osasunean duten eragina.



Haritz Eguren
Oiharte nekazalturismoa
Zerain

Osagaiak

- 48 orduz gezatutako bakailaoa.
- Baratzuriak.
- Oliba olioia.
- Patatak.
- Arrautzak.
- Ilarrak.
- Perrexila.

Lurrezko ontzi bat hartu eta olio dezenterekin baratzuri ale bat jarri fin xerratuta. Olioia berotu baratzuriak gorritu arte eta ondoren epeltzen utzi. Olioia epeltzen denean, bakailaoa pus-kak jarri.

Aurrena azala gora begira jarri eta segituan buelta

eman, azala beheara begira jarri. Ondoren astindu ontzia, 15-20 minutuan, saltsa loditu arte.

Bestalde, patatak eta ilarrak egosi lurrinetan. Patatak nahastu bakailaoari eta berriro astindu. Gainean, arrautza egosiak, ilarrak eta perrexila jarri.

Kolesterol maila altua daukat. Zer egin behar da?

AHOLKUA

Kolesterola gutxitzeko, ondorengo aholku hauek jarraitzea gomendatzen da:


- Hiperloesterolemia dutenek dieta orekatu, osasuntsua eta askotarikoa izan behar dute.
- Animalia jatorriko koipea duten jakiak neurritz jan behar dira. Haragiak proteina eta koipe ugari ditu. Zati gihartsuak jatea komeni da, eta prestatu aurretik, agerian geratzen den koipea kendu. Erraiak eta hestebe-teak ez jatea aholkatzen da. Orain arte alderantziz izan den arren, astean bi edo hiru aldiz txerri haragia jatea gomendatzen da. Agerian geratzen den koipea kendu

behar zaio haragiari. Saldak egiteko garaian haragia erabiltzen bada, koipea kentzen saiatu. Hozten denean, gainean geratzen dena kendu behar zaio.

- Gehienez, astean bi edo hiru aldiz jan arrautzaren gorringoa. Zuringoa nahi beste jan daiteke, ez du koiperik; eta proteina ugari ditu.
- Kremarik gabeko esnekiak hartu 'gaingabetuak'.
- Saiatu gozokirik eta opilik ez jaten.
- Jakiek zein osagai dituzten jakiteko, ondo irakurri etiketak.
- Jakiak prestatzeko oliba olioia erabili. Entsaladak

prestatzeko, oliba olio, elikore olio edo arto olio gordina erabil daitezke.

- Zuntz asko duten elikagaiak jan: barazkiak, garai-ko frutak (azalarekin), leकारीak, labore integralak.
- Astean hiruzpalau aldiz lekariak jan (dilistak garbantzuak, ilarrak, babak). Ondoren ezer ez jatea aholkatzen da.
- Astean hiruzpalau aldiz, arrain urdina jatea gomendatzen da. Itsaskiak, halere neurrian hartu.
- Sendagileen aholkuak jarraituz, alkohola mugatu behar da.
- Dieta egokia jarraitzearekin batera, kolesterola gu-



Leire Ezkurra
Dietista

txitzeko, kirola egin behar da. Norberak aukeratu dezake zein kirol egin: ibili, eskaileak igo eta jaitsi, bizi-kleta...

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia.

A-D ereduetan



Aurrematrikula:

ekainaren 1etik 7ra

Matrikula egiteko epea:

ekainaren 30etik uztailaren 6ra



TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza
barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatuetan.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.

J.M. Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara Bidea z/g.

Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403

E-posta: jmiparragirre@edunet.es

www.iparragirre.net

gehitu

EUSKAL HERRIKO GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA

Arrasate 51, 3. esk. Donostia 20005
943 468 516
www.gehitu.net info@gehitu.net
Informazioa eta Laguntza (InfAsis) 902 200 096
infasis@gehitu.net

“Euskaraz bizi gara”

Alzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Itsasondo eta Zaldibi Udalaeri Euskaldunen Mankomunitateko kide dira



Gune euskaldunetan euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta udal euskaldun guztiekin euskara nagusi izango den lur-gunea antolatzea da Udallerri Eus-

kaldunen Mankomunitatearen (Uema) helburua. Goierriko sei udalerrik, Alzagak, Aramak, Ezkio-Itsasok, Gaintzak, Itsasondok eta Zaldibiak bat egin dute helburu horiekin.



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

- Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak**
- Filtroak, olioak, engrasea**
- Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak**
- Harezko txorrotadak**



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Udalerri Euskaldunen mugimendua 1988an abiatu zen, Euskal Herrian Euskaraz erakundearen ekimenari erantzunez, hainbat udalek 'Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udala Arautegia' onartu zutenean bertako administrazioetan eta udalerrian euskaraz bizitzeko bitartekoak jartzeko asmoz.

Udalerri Euskaldunek erabaki hau hartu baino lehenago (1982an), Eusko Legebiltzarrak emaniko 10/82 Euskararen Legearen 8.3 artikulua eskaintzen zuen udalerri euskaldunetan euskara hutsez funtzionatzeko aukera.

Hasiera bateko udalen arteko ekimenari gorpuzta eta izaera juridikoa emateko Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (Uema) sortu zen 1991. urtean.

Helburu orokorrak

Hiru dira Uemaren helburuak:

Bata, Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.

Bigarrena, Udalerri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.

Eta hirugarrena, Udalerri euskaldunen garapen sozio ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.

52 herri, 100.000 biztanle

51 herri daude Ueman eta uztailearen 2tik aurrera herri bat gehiago izango da: Alegia. 100.000 biztanleri hartzen ditu bere gain Mankomunitateak.

Gipuzkoan 27 herri daude: Aduna, Aizarnazabal, Altzaga, Altzo, Anoeta, Antzuola, Arama, Baliarrain, Beizama, Belauntza, El-duain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Getaria, Ikaztegieta, Iruera, Itsasondo, Leaburu-Txarama, Lizartza, Mutriku, Oiartzun, Orendain, Oresa,



Goierriko UEMA-ko kide diren herrietako udal ordezkariak, Zaldibiako udaletxean bilera batean.

Orio, Usurbil, Zaldibia eta Zestoa.

Bizkaian, berriz, 17 herri dira Uemako kide: Ajangiz, Amoroto, Arratzu, Artea, Aulesti, Bermeo, Berriatua, Dima, Etxebarria, Gatika, Gizaburuaga, Lekeitio, Mendexa, Munitibar, Muxika, Ondarroa eta Zeanuri.

Nafarroan, 6: Arantza, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Goizueta, Leitza eta Urdiain.

Hauetz gain, Uemak badu Euskal Konfederazioarekin hitzarmena, eta ondorioz, Ipar Euskal Herriko 41 udalerritan (15 Lapurdin, 15 Behe Nafarroan eta 11 Zuberoan) ere normalizazio planak martxan jartzen hasi dira edo martxan jartzea hitzartu dute.

Goierri 6 udalerri

Uemaren aldarrikapenekin bat eginez, euskaraz bizitzea helburu duten eta bizi diren sei herri daude Goierri: Altzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Itsasondo eta Zaldibia. Euskararen aldeko konpromisoa, onurak, zailtasunak eta kritikak, denetik izan dituzte sei herrietako udal ordezkariak.

Altzaga

Altzagako Imanol Muxika alkateak gogoratu duenez,

Uema sortu berritan sartu zen Altzaga, 1993an zehazki. Itsasondotik banandu zen garaia ere bazen. "Hasiera hartan behar handiena zegoenean, administrazioa eta udalak gaztelera hutsean funtzionatzen zuten. Paper ofizial guztiak gaztelera zeuden. Uema-tik erabiltzen den dokumentazio ofiziala euskaratzen lan handia egin zen. Leku ezberdinetan eginda zegoen lana aprobetxatzen zen, jaso, elkarri pasa eta sortu ere bai", dio Muxikak.

Dena den, Uemari inolako meriturik kendu gabe, "azken batean udaletxeko langileen meritua ere bada. Azkenean euskaraz funtzionatzea langileen ardura da eta", aitortu du.

Arazo txikiren bat badutela azpimarratu du altzagako alkateak: "Udaletxe mailan nahikoa normalizatua dago euskara. Herritarrei ohar guztiak euskara hutsean bidaltzen dizkiegu. Euskaraz ez dakitenei, erdarazko laburpentxoak bidaltzen diegu. Beste administrazioetatik, bi hizkuntzatan ere iristen da dokumentazioa. Guk arazo txiki batzuk izan ditugu, arkitektoak euskaraz idazteko gaitasunik ez duelako".

Ueman urte asko daromatza Altzagak eta Uemaren festaz alkateak gogoratu duenez, "azokatxo bat egiten zen, Uemaren partaide ziren herrietako produktuak saltzen ziren. Gu babarrunak hartuta joaten ginen".

Arama

Arama 2002. urtean sartu zen Ueman. Asier Mujika zinegotziak gogoratu duenez, "gu Ueman sartu ginenean, Osakidetzaen aurka egin zuen Uemak, gaur egun zerbait folklorikoan, bihurtu da Uema". Asier Mujika oso kritikoa azaldu da Uemarekin, eta egoera politikoa- ren ondorioa dela uste du. "Bi edo hiru urte badaramagu gauza handirik egin gabe. Ez du funtzionatzen. Uema asko aldatu da agintea EAJ-k hartu duenetik. Erabat politizatu da. Gizartea zirikatzen ari zen elkarre bat, neutralizatu egin dute nire ustez".

Aramarra dena den, itxaropentsu dago 2007ko udal hauteskundeetan egoera aldatuko delakoan. "Gaur egun dauden oso eroso daude. Lehengoek zerbait zirikatzen zuten. Uema kontrolpean hartu dute eta orain hor daukate ez aurrera, ez atzera".

Mujikaren ustetan, Man-komunitateak akuilu lana egin beharko luke. “Gu ez gara hemendik bizi eta zirikatu egin beharko gintuzke. Hau gaizki egiten ari zarete, hau ondo... azkeneko bi urteetan inor ez zaigu etorri kontu eske”.

Uemako kide izatearen ondorioz, Udalak, euskara hutsean funtzionatu beharko lukeela esan nahi du. Dena den, zailtasunak badiutuzte. “Zailtasunik handiena, teknikarien txostenak euskaraz jasotzeko garaian izaten dugu”, argitu du Mujikak.

Ezkio-Itsaso

Ezkio-Itsasok ere urte asko daramazki Ueman sartuta. Udaletxeko eta herriko hizkuntza euskara dela adierazi du Migel Angel Idiakez zinegotziak. “Etxebizitza berriak egin direnetik, euskaraz ez dakien gero eta jende gehiago etorri da herrira bizitzera eta horiei, hala eskatzen dutenei, azalpena gaztelaz ematen zaie”. Udaletxean ere, batez ere teknikarien txostenekin sortzen zaie zailtasunik handiena. “Dena den, arkitektoak, euskaraz idazteko gaitasu-



Biztanleen %70 euskalduna duten udalerriek daukate Ueman sartzeko aukera.

nik ez badu ere, azalpen guztiak euskaraz ematen dituela argitu du”.

Yartu Kultur Taldeak ere aprobetxatzen du Uemak eskaintzen duen Kultur Elejirako ekitaldiak antolatuz.

Gaintza

1993. urteko otsailean sartu zen Gaintza Ueman. “Uemaren helburuarekin, gizarteko alor gutzietan euskaraz funtzionatzeko egin-kizunarekin bat gatozelako sartu ginen Ueman. Eta horrek ere Udaletxean euskaraz funtzionatzea esan nahi du”, argitu du Xanti Garmendia alkateak.

Zailtasunak izaten dituztela aitortu du: “Administrazioa euskaraz eta gaztelaz bidaltzen diren oharra berehala ateratzen dira, baina euskara hutsean bidaltzen direnekin nahikoa arazo izaten da. Askotan horrelako tirabira egon izan dira eta asko luzatu ere bai. Gure udaletxean baino arazo gehiago izaten da askotan beste erakunde batzuetan”, zehaztu du.

Uemaren lana nabarmendu nahi izan du Garmendiak. “Beti jarrera ona aurkitu izan dugu laguntza

“Gero eta errazago jotzen da elebitasunera”

Miren Segurola Uemako teknikarietariko bat da. Goierriko udalerrien balorazio bat egin dio Goierritarra aldizkariari.

Jakin dugun, euskararen planen batzuk egin dituzue hainbat herritan. Zein egoertan daude Goierriko 6 herri hauek?

Kontuan izan behar da UEMAREN hizkuntza politikarako irizpide nagusia euskara hutsaren erabilera areagotzea dela. Herri euskaldunak izanik, udalaren funtzionamendua euskara hutsez izatera iristeko urratsak ematera bideratu dira plan horiek guztiak. Hortik abiatuta, Goierriko 6 herrien egoera ona dela esan genezake. Hala ere, beste UEMAKO beste herri askotan bezala, azken bi urte hauetan egiten ari garen balorazioetan alde onak eta txarrak ageri dira.

Zeintzuk dira alde onak?

Oro har herri guztietan hizkuntza gaitasunean urrats handia eman da eta gaur egun udaletako langile ia guztiak gai dira euren lana euskaraz egiteko.

Barne funtzionamenduari dagokionez ere, emaitza onak dira eta esan liteke barne funtzionamenduaren gehiengo handia euskara hutsez egiten dela.

Langileek nahiko jarrera ona dute gaiarekiko.

Eta alde txarrak?

Herritarrekiko harremanetan, gero eta errazago jotzen da elebitasunera.

Hornitzaile eta zerbitzu enpresekiko harremanak euskaraz izateko zailtasunak egoten jarraitzen dute

Udalek kontratazio, baldintza plegu... hizkuntza irizpideak ez dituzte betetzen.

Gaztelaniaz iristen den dokumentazioaren aurrean, jarrera ahula agertzen da. Garai batean gaztelani hutsez iristen zen dokumentazioa bueltan bidaltzeko hartutako erabakia egun ia inon ez da betetzen.

Baliabide informatikoei dagokienez, zailtasun handiak ageri dira euskaraz jartzeko.

emateko garaian. Guk ere aprobetxatzen dugu mankomunitateak eskaintzen duena. Aurtengo udan adibidez, udal langileak trebatzeko ikastaroa antolatatu du”.

Gaintzako Euskara plana ere egin du Uemak, eta udalbatzak onartu zain dago.

Herritarren artean euskararen aldeko jarrera ere nabarmendu du gaintzarrek. “Etxe berrietara etorritako bateren batek ez daki euskaraz baina jarrera onekoa da, bai baitaki euskaraz bizi den herri batera etorri dela”.

Itsasondo

Itsasondoko zinegotzia den Amagoia Etxeberriaren ustetan, Aramako Asier Mujikak adierazi duen ildotik, azken urteetan geldotu egin da Uemaren eginkizuna. “Batasuna legez kanpo uztearen ondorioz, EAJ-k hartu du mankomunitatearen ardura eta bere helburua hiltzen uztea da. Azken urteetako egoera politikoak eragina izan du Ueman. Batasuna legez kanporatu eta udaletatik kanpo utzi ondoren, atzerapena nabarmena izan da. Zenbait bileretan nortasun agiria eskatzera ere iritsi dira. Proposatu zen ezker abertzaletik berez beren lekua izan beharko luketen zinegotziek parte hartzeko aukera izatea eta horretarako Partzuergo bat



osatzea. Baina beraiek pasoa egiten dute horretaz”.

1996. urtean sartu zen Itsasondo Ueman eta gustura daude Ueman sartuta egotearekin. “Euskara Plana martxan jarri dute, kultur ekintza gehiago antolatzen ari gara”.

Teknikarien txostenak euskaraz jasotzea da udal gehienek azpimarratu duten arazoa. Itsasondoren kasuan, adibidez, arkitektu euskalduna jarri eta arkitektoaren txostenak euskaraz jasotzen dituzte. Amagoia Etxeberriak beste datu bat ere eman digu, Uemako udalen eginkizunei buruz: “Gaztelerez iristen diren dokumentuak, berez bidali egin behar genituzke, beti

ere herritarrei kalterik eragiten ez dienean”.

Zaldibia

Zaldibiak ere badaramatza urte batzuk Ueman, 1993. sartu baitzen. Patxi Aierbe alkateak adierazi digunez, herri mailan euskaraz biziitzeko arazorik ez daukate, “baina herritik kanpora gauzak asko aldatzen dira. Administrazioetik bi hizkuntzatan etorriko da baina zerbait berezia denean... gaztelera asko erabiltzen da. Teknikariek ere gauza bera gertatzen da. Gure arkitektuak adibidez ez daki euskaraz eta txosten guztiak gaztelerez egiten ditu. Arazo handia da. Bestela, herri barruan, ez dauka-

gu inongo arazorik”.

Aierbek aitortu duenez, askotan, hizkuntzari baino garrantzia handiagoa ematen zaio presari. “Presaka ibiltzen gara eta administrazioan gauzak oso mantso joaten dira. Beti berandu ibiltzen gara eta berandu ibiltzearen ondorioz, txostenak-eta gaztelerez baldin badaude ere, aurrera egiten dugu. Askotan lehentasuna ematen diogu presari, beste edozerri, kasu honetan, hizkuntzari baino. Hor daukagu akatsa eta zailtasuna”.

Hainbat adibide jarri ditu Aierbek. “Lehiaketak, baldintza pleguak... euskara hutsean argitaratzen ditugu. Batzuk ondo hartzen dute, ohitu egin dira, nolabait behartu egin ditugu horretara. Beste batzuk, jakina, eskatzen dute gaztelerez ere”.

Zaldibiako alkatearen esanetan, herritarren %70a euskalduna duten udalak animatu nahi ditu Ueman sartu eta uholde handiagoa sortzea. “Uholde hori handiagoa balitz tentuago jokatuko luke administrazioak ere. Udaletxe guztien helburua horrek izan beharko luke, eta Goierriin gehiago. 1.500 biztanle inguruko herri asko daude Goierriin eta nik uste bat egin beharko luketela. Ahalik eta udal gehiago egon, administrazioa, teknikoak, enpresak... ere ohitu egingo dira euskaraz lan egitera”.



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika.
Legorreta: Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda.
Segura: Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle.
Zumarraga: Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo

barne diseinua
dekorazioa


**Garai berrietarako
ideia berriak**

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

Ezkioko “agerpenak” izan zirenetik 75 urte

*Miranda etxeko
Joxe Azpiazurekin
garai haiek gogoratzuz*

Ekainaren 29an 75 urte beteko dira Ezkioko bi anai-arrebek ustez Ama Birjina ikusi zutela eta ikaragarritzko ikusmina sortu zenetik. Denbora gutxiren buruan Ezkioko milaka eta milaka sinestunen peregrinazio leku bihurtu zen. Elizaren debekuaren ondoren, pixkanaka ahazten joan zen arte.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

1931ko ekainaren 29an Ezkioko bi anai-arreba, egunero bezala esne bila joan ziren eta itzulerakoan Ama Birjina ikusi zutela esan zuten. Uztailearen 7an prentsan atera zen gertakari horren berri. Eta uztailearen erdirako milaka eta milaka sinesdun gerturatu ziren Ezkiora. Gertakari haiek eta ondorengoak William A. Christian idazleak 'Las visiones de Ezkioga' liburuan kalera zituena duela 9 urte. Horretarako, herriko etxe gehienetan ibili zen galdeka. *"Ni barrituta geratu nintzen, garai haietako kontuez nik baino askoz ere gehiago zekien. Baserri guztien izenak, garai haietan baserri bakoitzean zein bizi ziren, denak zekien buruz"*, Aitortu digu Joxe Azpiatzuk. Guk berarengana jo dugu, liburuko ondo dokumentatutako datuez gain Joxeren zuzeneko bizipenak entzuteko.

Zuek zer pentsatzen zenuen garai hartan?

Ni txikia nintzen, 4 urte nituen, hau dena hasi zen garaian. Lehenengo ikusi zituztenak nire oso lagunak ziren. Mutila, Andres, ni baino 3 urte zaharragoa zen. Anttoni ere ni baino 7 bat urte zaharragoa zen, iaz hil zen. Zaila zen haiek gezurra esatea, zer ez dakit baina zerbait ikusiko zuten. Guk batzutan ikaratuta alde egiten genuen. "Gerrea, anaiek anaien kontra hil behar due, suzko bolak ikusten ditut goitik behera" esaten zuten, eta gu korrika etxera joaten ginen. Hura ikustea eta haien garraxiak entzutea ikaratzeko modukoa zen.

Igandean meza izaten zen eta larunbatean bezperak, handik atera eta korrika bertara joaten ginen, tomate pote hutsak hartu eta kirrikalak biltzera.

Gu egunero-egunero eta urte askotan hura ikusten ohitu egin ginen.

Herria asko aldatu al zen garai hartan?



Joxe Azpiatzuk Mirandan etxearen aurrean, bertan hartzen zuten ostatu Ezkiora etortzen ziren bainbat eta bainbat sinisdunek.

Igandean jende asko etortzen zen, denak ez ziren gain horretan sartzen eta inguru guztia jendez beteta egoten zen. Errepide azpiko zalaia autobus bezala beteta egoten ziren. Esaten zen Ezkioetik Eitzaraino eta Ormaiztegeraino autoz betetako egunak izaten zirela. Belgikatik ere etorri izan ohi ziren autobusak.

Bazarretxe udaletxe ondoan dago. Hortik gora Ama Birjina lekura bidearen bi bazterretan, uralitaz estalitako etxoletan, dendak jarri zituzten kandelak, errosariak, estanpak, postalak eta horrelakoak saltzeko. Kanpoko jendea izan zen denda horiek jarri zituena.

Sicartek berak ere bazuen denda. Joaquin Sicart argazkilari kataluniarrak gure aita zenarekin amastade handia zuen. Azkenean negozio guztiak utzi eta fraile joan zen. Sicartek argazki asko atera zuen Ezkion. Beraz gain argazkilari ugari ibili zen bertan, gehienak kanpotarrak.

Nolako giroa izaten zen Ama Birjina lekuan?


Ama Birjina ikusten zutela esaten zuenak tranpala deitzen genion oholtzan egoten ziren eta inguruan laguntzaileak eta jendea begira egoten zen. Gu ere han egoten ginen, begira baina ez genuen ezer ikusten. Jendea fin egoten zen beso-

ak zabaldua errezatu eta abestuz. Ikaragarria izan zen. Majina bar errosario errezatu zen, Jesus! Gure etxean egon ziren frantsek, aitagurea guk bezalaxe errezatzen zuten, euskaraz.

Ama Birjina ikusten zutenei, berriz, besoetan zintzilik jartzen zizkieten errosarioak. Horrela Ama Birjinak bedeinkatutako errosarioak etxera eramaten zituzten.

Sarri ikusten al zuten Ama Birjina?

Bai sarri izaten zen. Jendea biltzen zen, errosarioa errezatzen hasten ziren eta segituan ez dut esango baina berehala hasten ziren Ama Birjina ikusten.



Gaur egun ere, hileko bigarren igandean bainbat sinestun biltzen da Ezkioko Ama Birjina tokian. Duela 75 urte, berriz, eskuineko argazkian ikusten den bezalako jendetzak biltzen ziren.

Hainbat jende famatu ere egingo zen.

Garai batean Beizamako Ramona oso famatua egin zen. Jende askok adoratzeko zuen, inguruan ibili nahi izaten zuten hemengo pertsonaje denek. Azkenean harrek ere zerbait izan zuen, kontu garbirik ez dakit, baina, gezurretan zebilela edo.

Kruz Lete itsasondorra irakaslea zen, ikasleekin joan zen Ezkiora eta Ama Birjina ikusi zuen. Handik aurrera ere hainbat aldiz ikusi zuen eta bera ere fraile sartu zen, Valladoliden egon zen eta bertan hil zen. Gehiago ere izan ziren, Legazpiko Benitatxo neska gaztea ere moja sartu zen, beste asko bezala.

Garai hartan Ama Birjina ikusten zutenetik ez da inor bizi.

Aurkako jendea ere izango zen.

Hasieran errepublika garaia zen eta agintariak ez zuten gustoko Ama Birjinaren kontu hori. Behin gogoan dut, jende ikaragarri zen batean gu errepide bazterrean geundela, asaltoko guardia etorri zen. Sabairik gabeko autobusen moduko kotxeetan, etorri ziren, alde banatara salto egin zuten eta han zegoen jendea egurra ematen hasi ziren. Gu korrika etorri ginen etxera.

Apaizak ere batzuk al-

dekoak ziren eta beste batzuk kontrakoak.

Zuen etxean majina bat jendek hartuko zuen ostatu.

Etxeko hainbat gelek oraindik ere orduko izenak dituzte: Don Sebastianen koartoa (Bilboko injenaria zen eta urte guztian alokatuta edukitzen zuen), Manuelaren koartoa (hau gu zaintzen gintuen emakumea zen), frantsesak egoten zirena oraindik ere Doña Marian koartoa da. 9 gela genituen etxean eta guk ganbaran lo egiten genuen. Oso gustora ez baina hantxe egon behar.

Orduan kanpoko atea itxi ere ez zen egiten, gau eta egun irekita egoten zen eta jendea sartu eta atera ibiltzen zen.

Umeontzat a zer festa izango zena.

Goizean jaiki eta auzoko umeon zeregina bide bazterrean galdutako goxokiak eta txanponak, 5 edo 10 xentimokoak, bilatzea izaten zen. Tarteka laban txikiren bat aurkituz gero hura zen preziatuena, jendeak bide bazterrean ogitartekoak jaterakoan galdutakoak.

Zuenaz gain ostatu gehiago ere izan beharko ziren herrian.

Ezpeleta etxea jendea urte guztian hartzeko prestatuta zegoen. Ez Ama Birjina ikustera etorritakoak bakarrik, Ormaiztegiko bainu

etxean sartzen ez zen jendea, bertan jan eta bainuak hartu ondoren Ezkiora etortze zen lo egitera.

Etxe horretan bertan bi taberna ziren. Auzoan ba ziren gehiago ere, Santa Luzikoa oraindik ere zabalik dagoena eta beste pare bat ere egon ziren garai haietan.

Parrandarako aukera ere izango zen beraz.

Majina bat bertso izaten zen. Zapatar Txiki izeneko baserria zegoen auzoan, bertan ardo saltzen zuten. Orain 100 urte bete dituen Gabirikoa Antonio Olariaga 'Alkixa'k majina bat bertso bota zuen bertan, garai arten artzain egoten zen Santa Luzin. Berak esan izan dit, Joxe Etxeberri eta beste hainbatekin nahiko ardo edan eta gau guztia bertotan pasa eta goizean ardie-tara igotzen zela. Harek askotan esan dit: "Guk ere begiratzen genuen baina ez genuen ezer ikusten".

Aitzakia horrekin gauze juerga izaten zenez, bertsolariak bota izan zuten Ezkioko Ama Birjinak miraria egin zuela eta halako neska gazteak 'niño jesus' ekarri zuela. Holako kontuak ere izaten ziren. Hainbeste gazte eta hainbeste jende biltzen zen lekuan denetik izaten zen.

Herriarentzat diru iturri ere izango zen hainbeste jende ibiltzea.

Izango zen. Gure etxean ez zen inor aberastu eta auzoan ere ez. Nik ezagutzen dudan inork ez zuen ezer berririk egin, etxeak ere lehengoak, pixka bat mehortuko ziren, baina... Gure etxean iturria jarri genuen, mendian depositua egin eta ura ekarri genuen. Hainbeste jende ibiltzen zen eta urik ez zegoen etxeetan. Komunak-eta egin beharra izan zen. Auzoan kotxerik ere ez zuen inork erosi, hori bai, majina bat kotxe azaldu zen hemen.

Oraindik ere etortzen da jendea ezta?

Hileko bigarren igandean etortzen dira. Batzutan gehiago, bestetan gutxiago, baina hilerio etortzen dira.

Buru edo egiten duena Bergarako emakume bat da. Behekaldetik ere jende asko etortzen da, eta kurioso asko ere bai. Gazteak ere etortzen dira. Hor egoten dira ixil-ixilik otoitzean. Bertakorik inor ez dut ikusten nik. Akaso urtean behin edo bueltaren bat egingo dute, baina hileko bigarren igandeetan ez. Batzuk iturriko ura ere etxera ekarriko dute, baina besterik ez. Lehen kanpotik eta jende asko etortzen zen ura eramatera. Nik bertatik pasatuz gero tragoxka egiteko ohi-tura beti izan dut.

Herrian gai hortaz batere hitz egiten al da?

Hitzik ere ez. Gure ama eta

beste hainbatek fede handia zuten, baina ondorengoek ez dute hortaz batere hitz egiten, nik ere 79 urte dauzkat eta guk ez dugu aipatu ere egiten. Jendea igotzen ikusten badugu, “orain ere Ama Birjina lekura bazijok jendea” esaten dugu eta kitto. Orain dela gutxi igo nintzen eta nire adineko beste bat hantxe aurkitu nuen, baina besterik ez.

Garai hartan Ama Birjina ikusi zutenei gero burla ere egiten omen zitzairen.

Bai. Ezer ez zen esaten baina gaizki pasa zuten. Andres, lehenengo ikusi zuen mutikoa, eta ni oso lagunak ginen, soldaduzkara ere elkarrekin joan ginen. Gasteizen bizi zen eta hil aurretik ere hementxe egon ginen elkarrekin hizketan. Bada, ez nintzen inoiz hortaz ezer galdetzera ausartu. Inoiz esan zidan egunen batean hortaz libururen bat idatzi behar zuela, baina, nik dakidala idatzi gabe joan zen. Horiei, desprezioa ere ez zen izango, baina burla handia egin zitzairen garai batean.

Eliza ere aurka azaldu zen.

Ofizialki bai, baina aldeko apaizak ere ba zituen. Urrutitik ere etortzen ziren apaizak. Gure etxera etortzen zen Don Baudilio, Valladolidetik etortzen zen eta al-mendra garrapinatua ekartzen zizkidan. Nik zaharra goei entzuten nien, Arantzazu eta Loiola gertuegi zeudela eta hain gertu ez zela komeni beste elizarik egitea. Basilika bat egiteko proiektua zegoen, baina, ez zuten utzi, eta lehendik zegoen estalpea ere bota arazi egin zuten. Hala ere ez zuten jendea atzeratzerik lortu. Geroago ere, orain dela 50 urte inguru ere jende asko etorri ohi zen. Behin norbaitek jende asko zebilela eta Guardia Zibilei hots egin eta jendea bidaltzen aritu ziren.



Kruz Lete itsasondarra ikuspenean, besoetan errosarioak zintzilika zituela.



Ama Birjina lekura bidean hainbat dendatxo jarri zituzten, errosarioak, kandelak, postalak eta abar saltzeko. Bebeko argazkian ageri den lehen dena Joaquin Sicart argazkilaria kataluniarrarena da, bereak dira argazki hauek ere.



Joxe Mari Telleria, txistulari margolaria



Segurarra bada ere, Zerainen bizi da azken urteetan Joxe Mari Telleria txistularia eta pintorea. 17 urte zituela hasi zen lehen notak ikasten eta harrezkero, Seguran eta inguruko herrietan oso entzunak dira Telleriaren txistuaren doinuak. Pinturan

ere ibilbide luzea egina du. Bere bi pasioak uztartzen dituen estiloa lantzen du: musika eta pintura. Kanpoan izugarritzko beroa egiten zuela, bere etxeko freskuran elkartu gara, Telleriaren musikaren eta pinturaren sorlekua den estudioan.



GUKlan
BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



mazda

☎ 943 889 296

Faxe: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



Aita organista zenuen. Berarengandik al datorkizu musika zaletasuna?

Aitak niri ez zidan ezer erakutsi musikaz. Osaba ere organista zen. Eta ni jaio nintzen etxean, goiko pisuan, Jaxinto Galarza txistularia bizi zen eta bere seme Segundo Galarza pianista ere bai. Musika gertuan neukan baina niri beranduago sortu zitzaidan zaletasuna. 17 urterekin, Jaxinto Galarzari omenaldia egin zitzaion Seguran eta Donostiatik txistulari batzuk etorri ziren, tartean, Ixidro Ansoarena. Kontzertu hura entzun eta txistua jotzen ikasi behar nuela sartu zitzaidan buruan. Seguran zegoen Felix Galdona apaizarekin notak justu-justuan ikasi eta nire kasa hasi nintzen. Beasaingo Txanborekin ere aritu nintzen. Organoarekin geroago, aita hilda gero hasi nintzen.

Aurreneko txistuaz gogoratzen al zara?

Ansorena zaharrak, Ixidrok egindakoa zen. Harrera ona egin zidan. Gaur egungo aukerarik ez zen orduan. Bergarako Laskurainek ere egiten zituen.

Hasi zinenean, txistua jotzen asko ibiltzen zintzen?

Bai, dezente. Alardeak izaten ziren. Beasaingo Txanbo, Ormaiztegiko Paxkual Larrañaga... ibiltzen ginen.


Zu haien aldean gaztea izango zinen.

Bai, nik kotxea neukan-eta! **Makina bat herritan ibilia izango zara.**

Donostian urtero egiten den Alardean oraindik ere han izaten naiz. Urtero joaten naiz. Irunen, Tolosan, Oñatin...

Zein irudi eduki izan du txistulariak?

Orain ona. Lehenago esaten dutenez, ez hain ona. Inkisizio garaian txistulariak ere erre egin zituzten, dantza eragiten zuten, eta dantza galerazita zegoen. Orain ondo ikusiak gara.



‘Hartzen lurretan’ ikuskizuna

Segura herriaren sorrerako 750. urteurrena ospatzen ari dira 2006. urtean Seguran. Ospakizun hori tarteko, alkateak eskatuta, abesti berria konposatu du Joxe Mari Telleria txistulariak. Hortik sortu du ‘Hartzen lurretan’ abestia. Aita-semeen arteko uzta izan da: aitak musika doinua jarri du eta Aitzol semeak, hitzak. Seguraren iragana, oraina eta geroa aipatzen dira hiru bertsoetan. “Lehenengo eta hirugarren bertsoak, helduen abesbatzak abestuko dituzte lau ahotsetara; eta bigarrena, haurren abesbatzak, bi ahotsetara”.

Herrian musika munduan ibiltzen direnek, 90 bat lagunek, parte hartuko dute. Txistu, tutun, alboka, danborra, txalaparta, adarra, trikitixa, akordeoi, saxofoi, klarinete doinuak bilduko ditu kantuak. Denak ez dira herrikoak baina Segurarekin zerikusia dutenak bai”. Telleriak ‘Hartzen lurretan’ doinua deskribatu duenez, “kalejira da baina, martxa estilokoa”.

San Joan egunean egingo dute aurkezpena, eguerdiko 12etan.

Garai batean, gose garaian, txistulariak gustura joaten omen ziren herrietako jaietara, bazkari goxoak izaten omen ziren eta.

Ni entzunda nago bai hori Segurako zaharrei. Txistua jotzera norabaitera joaten zirenean jaten omen zuten ondo. Niri ez zait behar hori bizitzea hainbeste egokitu. Ni hasi nintzanean, Segurako txistulariak, Seguran, Zerainen eta Mutiloan jotzen genuen. Gaur egun ere bai. Gabiriara, Aztiriara, Lazkaora, Zaldibiara... ere joaten ginen.

Oraindik ere Mutilon eta Zerainen jotzen duzue Segurako txistulariak.

Baserriz baserri ibiltzen ga-

ra. Hiruna pieza jotzen ditugu baserri bakoitzean: zortzikoa, fandangoa eta arinarina. Seguran urtean zehar sei bat aldiz egiten dugu, etxex etxeko erronda. Garai batean oinez ibiltzen ziren txistulariak baserriz baserri baina ni hasi nintzanean, motorrean egiten genuen. Hiru txistulari ibiltzen ginen eta lehenengo bat eramaten nuen jo behar nuen lekura eta ondoren bestearen bila joaten nintzen. Geroago, taldeko batek kotxea ekarri zuen.

Oraindik ere baserriz baserriko ohitura mantendu egiten duzue beraz.

Bai, Gabirian ere mantentzen dute. Baina oso leku gutxitan gordetzen den ohi-

tura da. Lehen, sobrare, diru pixka bat ateratzeko egiten zen. Seguran, ez da etxe guztietan jotzen. Ohituraz horrela dator. Seguruasko, dirua zegoen etxeetan joko zen. Udal ordezkarien etxeetan ere jotzen zen. Udal agintari zen bitartean joko zitzaion baina zerranda horretan ez bazegoen, gero utzi egiten zitzaion jotzeari. Beti alkatearen etxetik hasien da jotzen. Azken urteotan ez, kaskotik urruti samar bizi delako oraingo alkatea.

Orain ere etxe zehatzetan jotzen jarraitzen al duzue?

Seguran bai. Mutilon adibidez, baserri denetan jotzen dugu, baina, kaskoan, etxe berrietan ez. Denerako astirik ez da izaten eta.

Jendeak zerbait ematen al dizue?

Dirua gehienean. Lehenago baserrietan denetik ematen zuten. Kafea, kopak eta ondorengoak.

Sanjoan festak dituzue orain. Zerbait berezirik

Txistulariak baserriz baserri joateko ohitura oso leku gutxitan mantentzen da.

Ixilkara eta dantza txapelketa

Segurako dantza txapelketak 30 urte bete ditu aurten eta urte guzti horietan, hortxe aritu izan da Joxe Mari Telleria. "Hasieran, bikote bakoitzari doinu ezberdinak jotzen zitzaizkien. 10 arin-arin doinu eta 10 fandango doinu. Baina dantzariak kexatu egiten ziren, doinu batetik bestera ezberdintasun handiak zeudela esanez. Orduan, 1986an, erabaki zen doinuen txapelketa egitea. 9 urtean egin zen txapelketa. Baina 1995. urtea gerotik, guztientzat bakarra jotzen dugu: fandango txistuarekin eta arin-arina trikitixarekin".

Dantza txapelketaren aitzakian, Ixilkara taldea sortu zuten. Joxe Mari Telleria bera (Lehenengo txistua), Ordiziako Joxe Manuel Bergara (bigarren txistua), Idiazabalgo Naxario Telleria (silbotea), eta Ordiziako Xabier Lekuona (atabala) laukoteak osatzen zuen taldea. "Naxariok eta biok segitzen dugu. Diskoa ere atera genuen. Lehiaketa batzuetan ibili ginen. Lau urtean hirugarren gelditu ginen. Donostian eta Bilbon izaten ziren lehiaketak".



Ixilkara taldeak kaleratu zuen diskoaren azalean Olibako monasterioko txistulari baten irudia ageri da.

egiten al duzue?

Etxez etxeko erronda egiten dugu. Seguran, Alborada, Urte Berri egunean, Pazko Egunean, Korpus egunean, San Joan egunean jotzen dugu. Lehen bitan jotzen zen: goizean eta bazkalondoren. Jendea kexatu egiten zen, goizean goiz hasten ginelako, eta bazkalondoren ere siesta garaia izaten zelako. Bazkal aurrera aldatu genuen. Orain bi talde egiten ditugu eta denbora erdian egiten dugu.

Seguran txistulariak badaude orduan.

Bai, martxan datoz. 8-10 bat elkartzen gara.

Txistua indarrean al dago?

Bai. Beno, gauza batzutarako: txistulari asko dago, eta onak. Falta dena da, dantzarako zaletasuna. Guk esate baterako, Sanjoanetan, berbera taldea egoten zen eta txistulariak ere bai. Jendeak dantza egiten zuen plazan txistuarekin. Jendea gero eta dantza gutxiago egiten hasi zen, eta gu ere gero eta gutxiago jotzen, eta utzi egin

genuen. Nire amak esaten du, jaiero, txistua izaten zela plazan eta jendeak dantza egiten zuela.

Dantza txapelketako bikoteak ere gutxitu egin dira...

Hasieran egun bakarrean jotkatzen zen. Ondo prestatu behar da, maila handia dago. Jendeak ikusten ditu dantzariak dantza egiten baina ez die batere emoziorik sortzen. Zerainen, iaz, 45 urtetik gorakoentzako dantza askatuko txapelketa sortu genuen. 7-8 bikote etorri ziren. Ondo dantza egiten zuten, baina edozeinek egiteko moduan. Hura ikusi eta bikote laguna aurkituz gero hurrengo urtean aurkeztuko zela esanez aritu zen jendea. Ezinezkoa da Seguran dantza egiten duten bezala

egitea. Herritartasuna galdu te du.

Herriko jaietan goizean goiz ibiltzen dira txistulariak kalean gora kalean behera. Sakrifikatua al da txistularien lana?

Bai... gaztetxoak juntatzea zaila izaten da, kosta egiten da. Baina gustatu egiten zaigu eta!

Txistua jo duzun lekurik bereziena edo bitxiena?

Ez dakit. Beasaingo Aurtzaka taldearekin Galesa joan ginen Xabier Sarasola, Naxario Telleria eta hiruok.

Euskal Herritik kanpo ezagutzen al da txistua?

Txistua bezalako instrumentuak badaude. Estatu Espainiar mailan, hiru zuloko flautak badaude, danbolinak ere bai. Segurako Alborada norena den inork ez

daki. Batetik bestera pasatu da belaunaldiz belaunaldi. Duela 30 bat urte, Espainiako Telebistan, 'Rios' dokumentala egoten zen astero. Estatuko ibaiak, jaiotzen zirenetik itsasoratu arteko kontuak kontatzen zituzten. Tajo ibaiarekin ari zela, Segurako Alborada, berdinberdina, jotzen entzun nituen, gaitarekin eta dultzainarekin. Ez dakit hangoek hemendik eta hemengoek handik hartu zuten, edo beste lekuren batetik etorri ote den. Segovia aldean ibili izan naiz dultzaineroei galdezka baina inork ez dit argibiderik eman. Itxura guztien arabera, martxa militarra da. Korpus egunean, prozesioan, Seguran jotzen zen doinu bat, oso polita zen, baina jotzeari utzi gunion. Nire aita organista zen eta bere partitura guztiak nik jaso nituen. Partitura zaharren artean 'Marcha de la fusileria' partitura aurkitu nuen, Korpus egunean jotzen genuen berdin-berdina. Antzuolan, Mairuaren ikuskizunean ere jotzen dute.

Esan nien musika horren jatorria zein den baina jotzen jarraitzen dute, polita delako. 'Guda martxa' izenarekin jotzen dute.

Segura aberatsa da doinuetan. Tradizio handia al dauka Segurak txistuan?

Nik uste baietz. Gorriti, Tolosako musikariak, Segurako organista plaza atera zuen. Baina organo zaharra zegoelako utzi egin zuen. Santa Ixabel etorri zen ondoren. Haren ikaslea izan zen nire aita.

Segurako plazan, Txanbolinpe daukazue.

Hor jotzen zen txistua, txanbolinarekin jotzen zelako. Lehen txistuari txanbo deitzen zitzaion. Txistularia jotzen zenean, danbolinarekin eta panderoarekin, sortzen zen musika. Trikitria deitzen zitzaion horri. Orduan dantza sobrare, nola edo hala egin egiten zuten.

Txanbolinpe, zure pinturaz apaindua dago.

Pintatzeko eskatu zitzaidan eta horixe bururatu zitzaidan. Ispilu bat balitz bezala pintatzea.

Zuretzat Txanbolinpe, leku berezia izango da zure bi afizioen adierazgarri: txistua eta pintura.

Hala da bai. Oraindik ere pinturak irauten du. Harrituta nago, haurrak jolasean ibiltzen dira eta.



Txistua eta pintura dira Jose Mari Telleriaren pasioak. Bi zaletasunak uztartu ditu bere bizitzan segurarrak eta musika oinarri duen pintura estiloa lantzen du.

Noiz hasi zinen pinturan?

Umeak ginela hasi nintzen, jardun eta jardun, neronek ikasi nuen. Gero CAFeko eskolan ikasi nuen eta han marrazki txapelketak egiten ziren eta irabazi egiten nituen. Urte batean oleo pinturak eman zizkidaten sari bezala eta orduantxe hasi nintzen. Lehenengo lanak ikusteak lotsa ere ematen du.

Zein estilorekin hasi zinen?

Paisaiak, bodegoiak... Gero abstraktura pasatu nintzen.

Koadro musikatuak

Denboralditxo bat egin eta berriz ere figuratibora salto egin nuen. Belarrak, garoak... marrazten hasi nintzen. Eta gero hasi nintzen, duela 20 urte, musika eta pintura uztartzen.

Zure pinturaren oinarria, musika da.

Bai, orain dela 20 urte hasi nintzen musika eta pintura uztartzen. Aristotelesekin ere esaten zuen musikako harmoniaren eta koloreen harremana bazegoela. Beste filosofo eta musikari askok ere esan dute gauza bera. Nik filosofia horri heldu nion. Gehienek egiten dute musika entzun eta sentitzen dutena


pintatu. Nik, partitura hartu eta partiturako notei dihoakien kolorea eman. Marrazkia, egitura ezberdinak egiten diet. Azkenaldian, harkaitzetatik formak hartuz ari naiz, harkaitzei musika kolorea emanez.

20 urtean estilo berean aritzeko gustura ari zarenearen seinale.

Bai, baina nik nahi dudana ez dut lortu.

Zer falta zaizu ba?

Musikan lau ahotsetan harmonizatzen bada, lau ahots entzun egiten dira. Pinturan ere lau ahots horien koloreak batera ikustea lortu nahi dut.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak



www.xetai.net

Zurgintza eta altzarigintza zure neurria

Tel.: 658 70 99 22 Faxa: 943 88 85 41
BEASAIN

Esperientziaren Eskolako 2006/2007 ikasturteko matrikula epea zabalik

Esperientzia Eskola 50 urte-tik gorakoentzat zuzenduta dago, non ez da titulaziorik behar. Gune irekia eta elkartruke bat izatea nahi da, honela Goierri eta Urola Garaiko eskualdeko helduek formatu eta esperientziak aldatu ditzakete.

Esperientzia Eskolak formakuntza aldetik garapen pertsonala du helburu, esperientzi desberdinak konpartitzea, eta momentu oro aldatzen ari den gizarte ulertzen laguntzea.

Klaseak astearte, asteazken eta ostegunetan ematen dira, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara.

Kurtsoa urrian hasten da eta ekainean amaitzen da eta gai ezberdinak jorratuko dira, era oso praktikoan eta azterketarik gabe. Ematen diren gai batzuk honako hauek dira: Osasun fisikoa eta mentala zaindu eta hobetzea, gizarte harremanak, zuzenbidea eta bere erabilerak bizitzan, Goierri-Urola garaiko historia eta ohiturak, informatika maila ezberdinen arabera... eta talde lanean proiektu bat eginez amaituko da.

Kurtsoan zehar ekintza osagarriak ere egingo dira: hitzaldiak, mintegiak, ibilaldiak, bisita kulturalak, beste



Esperientziaren Eskolakoek maiatzaren 31an Iparraldera egindako bisita.

eskola batzuekin elkar trukatetako, eta beste.

Eskola honetatik pasatu diren pertsona guztiak, gizonak eta emakumeak, esperientzi positibo bat izan dela esaten dute eta denon artean sortutako laguntasun harremanak primerakoak izan dira. Arrazoi desberdinak izan ziren eskolan apuntatzeko: gaztetan egin gabeko ikasketak berreskuratzea, denbora libretea bete, ezagutzak handiagotu, norberari eta besteeri erakutsi adina ez dela eragozpena

gauza asko egiten jarraitzeko, gizarte harremanak landu, etab.

Esperientzia eskolako 2005/2006 kurtsoa amaitu da, Iparraldera ibilaldi bat eginez, non Sarako kobazuloak eta herria, Hendaiaiko Antoine d'Abbadie gaztelua gozatzeko eta ezagutzeko aukera izan zuten, argazkian azaltzen den bezala. Esperientzia eskolako bostgarren promozioiko ikasleak eta Gueskeko (esperientzia eskolako ikasle ohien elkar-te sozio kulturala) bazkide-

ak elkartu ziren bisitan eta bazkari atsegin batez lagundu zen. Esan, Gueske elkar-tea ikasleek eskolan hasitako esperientzia honekin jarraitzeko gogoarengatik sortu zela.

Eskola honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero agertzen diren telefono hauetara deitu edo gerturatu zaitezte inongo konpromezurik gabe: Goieki, Ordiziko Mallutz industrialdean 18. pabiloian. Telefonoa: 943 161537. Goizeko 8:00etatik 13:00etara.

Esperientziaren eskola

IRAUPENA

Urritik ekainera.

Astean hiru egunetan (asteartea, asteazkena eta osteguna).

Egunean hiru ordu goizez (10etatik 13etara)

MATRIKULA

Aurretik izen-ematea: Irailaren 30 arte

Goiekiko bulegoetan, Ordiziako Industrialdeko 18. pabiloian.

Tfnoa: 943 16 15 37. Goizeko ordutegia: 8etatik 14etara.

Antolatzaileak:



Kolaboratzaileak:



Alazne Furundarena atleta ordiziarra

“200 metroak gustatzen zaizkit gehien”

Alazne Furundarena ordiziarra, Txindoki Atletismo Taldeko kidea da. Abiadurako probetan, 60 metro, 100 metro eta 200 metroko aritzen da. 16 urte ditu, 17 egiteko. Bigarren urtea du aurtengoa jubenil mailan.

Hurrengo urtean, beraz, junior mailan arituko zara.

Urte bete zaharragoekin lehiatu beharko naiz eta horiek beste kontu batzuk dira. Gazteena izango naiz. Aurten zaharrena izan naiz.

Aurtengo denboraldia nola joan da?

Emaitzekin gustura nago baina denbora asko egon naiz lesionatuta. Bi edo hiru alditan bakarrik lehiatu naiz. Baina lehiatu naizentan, hori bai, ondo aritu naiz. Nire markak hobetu egin ditut. Nik uste lesionatuta egongo ez banintz, emaitza onak lortuko nituela, aurtengoa gustatzen dut eta. Ea orain sendatu eta Espainiako txapelketetan ondo aritzen naizen.

Seriago heldu diozu orduan atletismoari.

Bai. Iaz Espainiako txapelketa irabazi nuen 200 metroan eta beti uste izan nuen, beti lehenengo egiten zuen hari ezingo niola irabazi. Baina irabazi egin nion eta gehiago motibatu nintzen.

Denboraldia amaitzeko zer lehiaketa gelditzen zaizu?

Espainiako txapelketa uztailearen 8 eta 9an. Gero mundialak gelditzen dira, aurtengoa Txinan izango dira. Hara joanez gero, 4 x 100 errelebotan arituko nintzatekeen. Baina hori zaila izango da lortzea, aurtengo denboraldian ez dut gauza handirik egin eta. Saiatuko naiz.

Beti abiadurako probetan aritu izan al zara?



Alaznek ondorengo markak ditu: 200 metroan: 25,75 (Euskal Autonomia Erkidegoko marka, jubeniletan); Gipuzkoako marka, absolutua) 60 metroan: 7,64 eta 100 metroan: 12,09.

Hasieran krosean ibiltzen nintzen baina ez nintzen batere gustura aritzen. Leher eginda bukatzen nuen. Baina niri abiadura gustatzen zitzaidan eta irakasleak esan zidan proba egiteko. Hesietan hasi nintzen lehenengo baina hesiek beldurra ematen zidaten. Gero abiadura probatu nuen eta hori da gustatzen zaidana.

Zein ezaugarri behar da abiaduran aritzeko?

Entrenatzea. Entrenatuz gero helburuak lortzen dira.

60 metro, 100 ala 200?

200 metro. 60 metroan irteerak zerikusi handia dauka. 100 metroa ere ez dago denbora gehiegirik aurreratzeko. 200 metroan, irteerak ez dauka hainbesteko garrantzirik.

Irteera al da zailena?

Niretzat bai. Hasieran, makurtuta joan behar da indar gehiago emateko. Makurtuta joan ezean, denbora galdu egiten da.

Etorkizuneko kirolari zarelara irakurri dugu non-bait.

(Barre egiten du). Etorkizuneko kirolariaren Diploma bat eman zidaten bai iaz, bekarekin. Kirolgik ematen du beka.

Nola ikusten zara etorkizunean?

Nik atletismoan jarraitu nahi dut, ez dakit nola ibiliko naizen baina gustatu egiten zait. Gustatuta, gaizki ibili arren, jarraitu egiten da.

Neska askori gertatzen zaie, behin adin batera iritsitakoan kirola uztea. Zer esango zenieke neskei?

Lehen, abiaduran, beste hiru neska gehiago aritzen ziren nirekin entrenatzen. Bat lesionatu egin zela, besteari gogoia joan zitzaiola... bakarrik gelditu naiz mutil guztiekin. Neskak animatu egin nahi nituzke: kirola egin behar da, eta ez paseatu bakarrik. Eta futbola ez dela kirol bakarra, neska gehienak atletismoa utzi eta futboleant hasten baitira. Futbolak etorkizun gehiago dauka baina atletismoa ere oso polita da.

Zu nolatan hasi zinen atletismoan?

Eskola kirolean, futboleant eta saskibaloian aritzen nintzen, atletismoa alde batera uzten nuen. Irakasleak atletismoan hasteko animatzen ninduen baina ez nintzen entrenamenduetara joaten, eta emaitza onak lortzen nituen. Orduan, gero eta gehiago gustatuz joan zitzaidan atletismoa. Futbola utzi nuen eta Txindoki Atletismo taldearekin hasi nintzen eta oso gustura nabil.

Kirolari bezala zein da zure ametsa?

Olinpiadatarara joatea, baina...

Eta helburua?

Ea mundialetara joaten naizen.

Aurtengoetara bai?

Ea Espainiako txapelketarako ondo jartzten naizen eta mundialetarako hartzen nauten.

Aukerarik ikusten al duzu?

Ez dut uste, baina ahal dudana egingo dut. Espainiako selekzioak neska batzuk aukeratzen ditu. Konzentrazioak egiten dituzte, entrenamenduetarako. Emaitzak ikusten dituzte eta hortik 5 neska aukeratzen dituzte, bat erreserban. Egia esanda, denboraldi xelebrea darabagu denok ere, lesioekin.

Euskaltzaindiak batzarra egingo du Zaldibian

Frantzisko Ignazio Lardizabal jaio zela 200 urte beteko dira uztailaren 5ean

1806ko uztailaren 5ean jaio zen Frantzisko Ignazio Lardizabal Urretabizkaia, Zaldibiako Zubiaurre baserrian.

Apaiak ikaskizunak Lazkaoko Karmeldarretan (egungo Beneditarretan), Burgosen eta Madrilen osatu zituen, eliz notario izate-raino. Apaiak ikasketak egin ondoren, bere sorterriko, Zaldibiako erretorea izan zen.

1855ean, Gipuzkoa osoan zabaldu zen kolera izurriteak jota zeudenak laguntzen ari zela, bera ere kutsatu eta 1855eko abuztuaren 20an hil zen, Zaldibian bertan, 49 urte zituela.

Euskal Herriko giroak eragin omen zion kristau heziketan saiateraz eta euskaran trebatzera. Hizlari egokia berez, latinez eta gaztelerez irakurritako ideiak euskara jator, txukun eta ulergarrian jartzen saiatzen zen.

'Testamendu zarreco eta berrico condaira'

1855ean, 'Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira' lana eman zuen argitara. Itun Zahar eta Berriko kontakizunen bilduma egin



Zaldibiako udaletxean dagoen Lardizabalen erretratua, atzean, bere jaiotetxea, Zubiaurre baserria, ageri dela.

zuen obra horretan. 100 urtean, hiru aldiz argitaratua izan zen: 1855ean, 1887an eta 1956an. "Gerrate mundiala arte gipuzkoarrek gehiena erosi eta irakurri duten euskal liburua" omen da. Euskaltzaindiak esandakoaren arabera, "euskara landu, jator eta argia dabil. Kontalari ona da Lardizabal, eta horren adierazgarri da Gipuzkoan liburu horrek izan zuen zabalkunde handia".

'Gramatica vascongada'

Hil eta handik urte betera, 1856an, Hernanin bildutako Biltzar Nagusiaren onarpenaz, Lardizabalek idatzirik 'Gramática Vascongada' argitara eman zuen. Argitaratzeko erabakiaz gainera, Gipuzkoako eskola-irakasle guztiei banatzeko agindua eman zen euskara landu eta jakin zen. Euskaltzaindiaren arabera, "Batez ere gipuzkera lantzen bada ere, badira bizkaieraren azalpen

Ekainaren 30ean omenaldia

Ekainaren 30ean, Euskaltzaindiak hileko osoko batzarra egingo du Zaldibian, Frantzisko Ignazio Lardizabalen omenezko bilkura egiteko. Arratsaldeko 6,15etan, Lardizabalen jaiotetxean, Zubiaurre baserrian, plaka jarriko da agerian. Jarraian, 6,30etan, Antzokian, ekitaldia egingo da.

Patxi Aierbe Zaldibiako alkatearen eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurren ondoren, bi euskaltzainek Lardizabalen lanari buruzko hitzaldi bana emango dute Mikel Zalbidek, 'Lardizabalen lanak bere garaiko euskalgintza- barnean' hitzaldia eskainiko dute. Eta Beñat Oihartzabalek azkenik, 'Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak: euskararen heriotza- ren gaia hizkuntz darwinismoaren teoria agertzeko bezperan'.


IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

ugari eta goi-nafarrerari buruzko banaka batzuek ere. Lardizabalenak omen dira, halaber, 'Historia de San Miguel Excelsis de Aralar' eta 'Maria Santisimaren amodio ederraren novena' idazlanak, gaur egun galdutzat jotzen direnak.

Lardizabalen euskara

1956. urtean Aita Fernando Mendizabalek, Lardizabalen euskara aztertuz Arantzazun eskaini zuen 'Lardizabalen euskaraz zertxobait' hitzaldia berreskuratu du Goierritarra aldizkariak. Bertatik ateratako hainbat pasarte dituzue jarraian.

"Aita Larramendi euskalzale aundiak idatzitako gramatikaren utsune eta aketsak osatzeko eratu zuan Lardizabal'ek berea. Eta beironen elazketa zuzentzen ari zala atzitu zuan erioztzak. Itzaurrerik gabe utzi zuan, eta Aldundiaren aginduz Gereka'tar Erramonek egin zion itzaurrea. Giputzerari bakarrik lotza omen zuan bere asmoa, baña bizkaiera ta naparrera ere berdintsu azaltzen ditu. Ikusita zeuzkan, beti aurreti, euskera gaietan idatzi izan zu-

tenak: Larramendi, Astarloa, Zabala, Mogel, Mendiburu, Kardaberaz, Ubillos, Agirre, eta abar... aitamenetatik ikusten danez. Gereka'tar Erramonek dionez oso entzuna omen zan euskera landako Lardizabalen arrigarrizko jakitea. Eta Azkuek "bere egunetako gramatikalaririk aundiena zala" dio.

Balio aundiagoko ez dakit, baña gramatika baño irakurriago eta ezagunagoa-du Lardizabalek beste liburu bat: "Testamentu zarreko ta berriko kondaira" alegia. Amaikatxo on egin dako liburua auxe. Orixe jaunaren esatez "euskera eder, garbi eta ugaria du idazteunaren laburtzapen onek". Irakurle asko zituan hein batean, baña gaurregun urri samar dituala uste dut".

Nongo euskara?

"Nungo euskera-mota dauka Lardizabal'ek bere liburuan? Giputzero ia erabat; baña ez da arritzeko liburu ortan Bizkai ta Naparroako euskeraren usaia aditzea. Gogora dezagun bere gramatikan giputz, bizkai ta naparrerak daukatela toki".

Adibideak

Aita Fernando Mendizabalek Lardizabalen euskaraz egin dako azterketatik hainbat ondorio atera daitezke: bizkaieraren eta nafarreraren zantzuak ikus daitezkeela Lardizabalen hitzetan. Erderakadak ere aurkitu izan zizkion. Jarraian dituzue hainbat adibidez:

- *Gitxi*: "Eun-da geiago alditan darabillen *gitxi* ori etzuan Zaldibi'n ikasi, edo beintzat gaurregun ez da esaten".
- Erderakadak: "*maite izan*-en orde, *nai izan* erabiltzen du batzutan erderazko *le quiere* bezala: 'ainbeste nai zion emaztearen iltzea'".
- Hiztegia: "Itz asko dauzkala Azkue'ren iztegi nagusiak ez dakarzkienak; batzuk Larramendi'ren iztegitik jasoak direla iñundik ere: 'lurruspe' aitzulo edo koba esateko".

'Testamentu zarreko kondaira'

Itz-aurrea

Nere euskaldun maiteak: Gizonaren gaiztakeriari atekak isteko, bide onenetatik bat, deritzat, Jaungoikoak gizonagatik egin duena, jakitea dala. Egiaz nor gizonaganako Jaungoikoaren amorioa ezagutzen duena, Jaungoikoak gizonaren alde egin izan dituen mirari andiak dakizkiena, jarriko da berari min ematen, eta kontra egiten, aren agindu santuak autsiaz? Guziz esker-gabea, eta dollora izan bear da, alako erantzupidea ain Ongille oparoarekin gordetzeko. Argatik Elizako guraso santuak beti leiatu izan dira, Jaun-Egilleagana-ko esker-ona Kristauen biotzetan sarerazotzen, begien aurrean ipintzen diezteela artu izan dituzten mesedeak, eta eskeñten diezten zori-onak: eta, ara emen, nere lanari ekiteko izan nuen eresia, agerturik. Itzkuntza guzietan dituzte beren liburua, erakusten diezteenak, Jaungoikoak egin dituela, Eskritura Santak dion, gauza miragarriak: eta zuek ere, nere erritar maiteak, mesede au merezi zenduten, zeron begiakin guzia argiro zekusaten. Egia da, aita Fray Juan Antonio Ubillosek Apaiz Fleuriren esku-liburutxo bat, zenbat gertakari dakarzkiena, eman zizuela, euskarara ederki itzulua; baña nai litzakean baño laburragoa da. Franziaiko Apaiz-Larregik ere, orain irurogeita amar urte diralarik, argitaratu zuen Testamentu zarreko eta berriko Historiaren izenarekin liburu luzeago bat, munduaren asieratik, Jesu-Kristo gure Jauna zerura igo zan arteraño berriak zerbait zearoago eta zabalki-ago ematen dituen; baña liburu onek ere, batetik Labort-euskararen ipiña, bestetik zuen artean txit urria eta bakana dalako, dezuten utsunea ez du, nai bezala, betetzen. Nik, bada, nere ez-jakiñari gogor egiñik, artu nuen, Gipuzkoako nere euskararen berri bat ipintzeko, eta argitaratzeko asmoa. Badakit, nere lanak uts andiak izango dituela; ala-ere, beste obeto egindako eta ezarritako bat eskuetaraten dezuten bitartean, Jaungoikoaren obra miragarrien berriak ugari emango dizkizuten, zeñak ikusita, zuen biotzak, arrizkoak ezbadira, artuko dute, ain Ongille onarekin leialak izateko gogo, nere nekearen saririk naiena izango dana. Jaungoikoari ala nai dakiola, beraren onrarako, eta animaen onerako. Agur.



kutxa

Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,

hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com
gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

logela

Goierrin logela bat hartuko nuke alokairuan. 695759443.

errentan eman

Saloun apartamentua alokatzen da, hondartzatik gertu, igerilekuarekin. 'Michelangelo' eraikuntza. Ekainetik irailera alokatzen da. 943027417.

Ordizian edo inguruan familia arduratsuak pisua errentan hartuko luke. 627568311 - 667032109.

Jakan apartamentua alokatzen da igerilekuarekin, uztail osoan eta abuztuaren 15etik 31ra bitartean. 676615361.

Apartamentua alokatzen da Zaldibian. Oso berezia, oso polita. 943880044.

Jakan, apartamentua alokatzen da udan. Igerilekuarekin. 943885674 - 943216684.

Ezkarain, apartamentua alokatzen da, udan. 678344604.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Poltzikoko erloju grabatua galdu da San Adrian eta Zegama bitartean. Maiatzaren 30ean. Izaskun eta Manex jar-tzen du. 637447004.

Maiatzaren 29an, txakurra aurkitu nuen Otzaurteko koban. Ehiz txakurra da, txuria eta beltza. 606044608. Josu.

BESTELAKOAK

salgai

Comanche gurdindenda salgai. (650 euro). 685754309.

GARAJEAK

errentan eman

Ordizian, garaje itxia alokatzen da. 665756560.



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



berriz

AMAYA ARZUAGA FRENCH CONNECTION
MIRIAN OCARIZ DIESEL
ISABEL MARANT FOR ALL MANKIND
PAUL & JOE ANTIK BATIK
HOSS EARL JEANS
MISS SIXTY SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

IBILGAILUAK

erosi

Peugeot 306 salgai. 5 atekoa. (2002. urtekoa). Ondo zaindua erosiko nuke edo Volvo V40 batengatik aldatu. 943161945.

salgai

Nissan Primera salgai. Egoera eta prezio oso onean. 659049091.

Volkswagen Golf salgai. Gasolina. 105 zaldi, 2001. urtekoa. 65.000 km. 606061165.

Opel Corsa 1.3 salgai. Oso egoera onean. 750 euro. 665709146.

Volkswagen Transporter TDI-a salgai. 30.000 km. 635722378.

Seat Ibiza 1.9 D salgai. SS-BF. Egoera oso onean. 659403893.

Knaus soubvin karabana salgai. Abantzearekin eta bizikleta eramatekoarekin. Egoera onean. 639775777.

Renault Clio 1.9 diesela salgai. Egoera onean. 630663859.

Mercedes Vito 112 CDI salgai. 2003. urtekoa. Oso egoera onean eta prestatuta. 653747989.

Renault Traffic 1.9 diesela salgai. 100 zaldi. Combi grisa. 2005 urtekoa. Urtebeteko garrantia. Gehigarri guztiakin. Oso egoera onean. 615729125.

LANA

eskaerak

Asteburuetan zerbitzari lanak egiteko neska bat behar da **jatetxe** batean. 630402575.

Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira Beasainen. 629869668.

Esperientziadun zerbitzari euskalduna behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. 943164844 (9:00etatik 13:00etara deitu).

Peoi bat behar da etxe eta jardineko lanetarako. 943160432 - 626898264.

Goierriko jaki enpresa batek dendetarako kudeatzailea behar du. Ekonomi edo/eta bezero arreta kudeaketan bi urte edo gehiagoko esperientzia nahitaezkoa. Soldata interesgarria eta mugagabeko kontratua. Interesatuak CV-a bidali rencinas@sainzconsultores.com erref. GT 574 edo 943297482 fax zenbakira.

Beasaingo ilepaindegi baterako laguntzailea behar da, asteburuetarako. 943881442.

Ingeleseko irakasleak behar ditu datorren ikasturterako Sequoia Languaje Academy-San Benito Ikastolak. Interesatuak curriculum vhigareda@sanbenito.ikastola.net helbidera bidali.

Laguntzaile lana egiteko prest dauden mutilak behar dira. Igeltseritza edo antzeko lanetan esperientziadunak hobe.

Emakumezkoa behar da azoketan dendari lana egiteko, goizetan. 615764442. Patxi.

eskaintzak

Emakumea prest dago etxekolanak egin eta haurrak edo agureak zaindu eta ostalaritzan lan egiteko. 650571774.


Emakumea prest dago etxekolanak egin eta haurrak edo agureak zaintzeko. Erdalduna. 620743076.



Iñasti
Hertz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagarza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak



Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84



ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120
www.ikaskide.net

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

IKASKETA TEKNIKAK

- ✓ Irakurmena
- ✓ Azpimarraketa
- ✓ Eskema
- ✓ Laburpena
- ✓ Buruz ikasi
- ✓ Azterketa prestatu

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)



Gabiriko 1940. urteko Izar-Haundi baserriko sendia

Ander Iurritak utzitako argazki honetan ageri direnak, Izar-Haundi baserriko Murua sendikoak dira., aiton-amonak, gurasoak, osaba eta 6 seme-alaba. Sendi hau baserri honetara 1910. urtean heldu zen, aurretik Lazkaoko Ondarre-Txiki baserrira ezkondu baitziren Juan Migel eta Paulina aiton-amonak.

Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera: Gabino Murua Izagirre (aita), Dominika Garin Agirreurreta (ama, izatez Gabiriko Arana-Haundi baserrikoa), eta Pedro Murua izagirre (osaba).

Erdiko ilaran: Anita Murua Garin, Juan Migel Murua Lasa (aitona, izatez Brinkolako Zubitxoeta baserrikoa), Edurne Murua Garin, Paulina Izagirre Zunzunegi (amona, izatez Lazkaoko Enparandegi baserrikoa), Miren Murua Garin, eta Juan Murua Garin.

Aurreko ilaran: Joxe Murua Garin eta Paulo Murua Garin.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI *Jose Ramon Pato Prieto*
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN S.L.
Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g
ORMAIZTEGI

OSINALDE
KARROZERIA

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

BARANDIARAN
zeramikak

ERREFORMAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Nazaret zentroa

www.nazaretzentroa.com - Aldakoenea, 36 - Bº Egia
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384

N^Z

Irakaskuntza ertain eta lanbiderakoak
Enseñanzas medias y profesionales

Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak	Ziklo Ertainak
1 Administrazioa eta Finantzak	1 Administrazio-Kudeaketa
2 Informatika	
3 Marketina	
4 Nazioarteko Merkataritza	
5 Idazkaritza	

Ikasgaiak euskaraz, erdaraz eta ingelesez ematen dira

JARDUNALDI IREKIAK

Hilabetea	Martxoa		Apirila		Maiatza	
Eguna	24	25	28	29	26	27
Ostirala	●		●		●	
Larunbata		●		●		●
Ordua	18h. 11h.		18h. 11h.		18h. 11h.	

kutxa , lankidetzako gizarte ekintza

OR GLASS

KRISTALDEGIA

Martina Maiz, 3 - BEASAIN Tel.: 943 16 20 80 - 620 75 30 60



KRISTALDEGIA OROKORREAN

Aurrekontuak konpromezu gabe
Etxerako zerbitzua
Merkatal instalakuntzak
Climalit
Stadip
Biselatuak
Ertz leunduak
Grabatuak
Fusing
Hare zorrotadak
Lababo gainak
Ispiluak
Moldurak
Osagarriak

